Ikastolen Egoitzak
2023/2024 urteko norabide txostena

“Ikastolen Egoitzak” elkartearen Biltzar Nagusia urtean zehar hiru aldiz bilduko da. Elkartearen Bulegokideak bederen hilabete guziz bilduko dira. Elkarteak ikastolak eta erakunde publikoen arteko bilkurak antolatuko ditu, egoitza berriak eraikitzeko proiektuak edo eskola eraikinetako berrantolaketak, handitzeak, konponketak, mantentze lanak gauzatzeko. Funtsean, baliabide ekonomikoak eta humanoen arabera, elkartea saiatuko da ikastola bakoitzak eraikin egokiak ukan ditzan segurtatzea. Hori Ikastolen Kontseiluak bozkatuko duen aurrekondua errespetatuz eta Seaskako Bulego Eragilearen adostasunarekin eginen da.

Urtean zehar, “Ikastolen Egoitzak” elkarteko bulegokideak ikastola bakoitzarekin harremanetan sartuko dira : lehendakaria eta bertako “Ikastolen Egoitzak”-eko ordezkariarekin, ikastolaren eraikineri lotuak diren gaiak elgarrekin aipatzeko. Bertzalde, beharra senditukо duelarik, ikastola bakoitzak bere erreferenteari dei egiten ahalko dio.
Ikastolen ibilmolde gastuak txikitzeko gisan, “Ikastolen Egoitzak” elkarteak mutualizazio aterabideak proposatuko ditu.

Energiaren kostuen emendaketari aurre egiteko “Ikastolen Egoitzak” elkarteak lan talde bat antolatu du, ikastoletan egin litezkeen ekonomiak aztertzeko. Ikastola desberdinek igorri dituzten datuak aztertuko dira. Horren ondotik, ikastolei proposatzen ahalko diren aterabideak landuko dira.

Oroitu : alokatzaile arruntak bezala, ikastolek beren egoitzen mantenimendua segurtatu behar dute (eraikinak publikoak baldin badira edo “Ikastolen Egoitzak” elkartekoak). Betebehar hori, ikastolek izenpetu duten hitzarmenaren 4° artikuluan agertzen da.

Bertzalde, « Ikastolen Egoitzak » ikastola guziak biltzen dituen elkarte bat dela oroitaraztea garrantzitsua iduritzen zaigu. Ondorioz, ikastolak handitzeko, arraberritzeko, konpontzeko egiten diren zorrak mutualizatuak dira eta buraso guzienak dira. Elkartearen bulegokideek baita ikastoletako ordezkariek ere egiten duten lanari esker, diru ainitz guttiago xahutzen da. Ekonomia handi horiei esker, proiektuak gauzatzen ahal dira. Ikastola bakoitzetan gure lanaren zergatiak oroitaraztea egokia litzateke.

Aurreikusiak edo eskatuak izan diren lanak

- **Arbona-Ahetze :** Kanpoko eremua antolatzeko, herriko etxearekin negoziatzen ari gira.

- **Azkaine :** Herriko etxeak eskola publiko berri bat eraikiaraziko du. Ondotik gaur egungo eskola publikoaren egoitza ikastolari utziko dio. Eraikitzeko baimena aztertzen ari dira.

- **Azkarate :** Herriko etxea lekuz aldatu da eta orain arte erabiltzen zuen egoitza ikastolari utziko dio. “Ikastolen Egoitza” elkarteak arkitekto bati eskatu dio proiektua ikertzea. Gogoetatzen ari gira proiektuaren aitzinkondua, diruztatzea eta gauzatzea zehazteko.

- **Basusarri** : Arraberritze lanak laister bururatuak izanen dira. Ikastola berria 2023ko iraileko sartzerako prest izanen da.

- **Beskoitze :** gaur egungo moduloak sobera hertsiak eta zaharrak dira. Ber eremuan egoitza berri baten eraikitzeko baimena pausatua izan da eta administrazioa ikertzen ari da. Lanak 2023-2024 urtean egiteko asmoa dugu. Eraikitzea eta behin-behineko moduloen antolaketaren aitzinkondua 900 000 €-koa da. Horren pagatzeko, “Ikastolen Egoitzak » elkarteak 20 urteko mailegua eginen du, urte guziz 66 000€ kostatuko duena.

- **Biriatu** : Herriko etxeak eta Euskal Elkargoak eramaiten duten Bakea hotela ohiaren arraberritze eta antolaketaren proiektuaren ikerketak aitzina doaz.

- **Baiona POLO :** ur sartzeak gelditzeko, teilatua konpondua izanen da. Ikasgeletan gertatzen ahal diren gainberotzeak saihesteko, iduzkiaren kontrako babesak ezartzeko aukera ikertzen ari da ere.

- **Bernat Etxepare Lizeoa :** Kopuruen emendaketarekin, lizeoak handitzeko beharra du. Euskal Elkargoa lizeoaren auzoko ikerketa egiten ari da, ikastetxearen beharrak ondoko lur eremuetan kondutan hartzen ahalko liratekenez aztertzeko. 2023ko sartzea behar den bezala iragaiteko, ikastola batzuetatik libratu diren moduloak uda huntan lizeoan ezarriko ditugu, 2 ikasgela antolatzeko.

- **Bokale** : ikasleen kopurua emendatzen ari da. Ondorioz, aterbea sobera txikia da. Handitze lanak 2023ko udan eginen dira.

- **Estitxu Robles kolegioa / Oihana (Baiona)** : Departamenduak onartu du « Ikastolen Egoitzak » elkarteak aurkeztu duen C bastimenduaren arraberritze proiektua (IDZ, administrazioa & irakasleen gela) eta lanak osoki bere gain hartuko ditu**.**
  Estaian kokatuak ziren apartamendu ohiak arraberrituak izanen dira, Seaskako irakasleendako.

- **Hiriburu :** ikastolaren handitzeko, egoitzaren jabea den Euskal Elkargoarekin negoziatzen ari gira.

- **Itsasu :** Egoitza sobera txikia baita, herriko etxea eta Euskal Elkargoa proiektu bat ikertzen ari dira, ikastola ondoko eskola publikoan handitzeko posible denez ikusteko.

- **Ortzaize :** Egoitza sobera txikia baita, ikerketa bat eramaiten ari gira psikomotrizitate gela berri bat antolatzeko, aterbea handitzeko eta aterbearen azpian lo gela berri baten antolatzeko.

- **5garren kolegioa ("Kattalin Elizalde" - Senperen) :** Eraikitze lanak 2023ko urtarrilaren hastapenean hasi dira, lehen fasea iraileko sartzearendako bururatua izateko helburuarekin. Ikastetxea osoki bururatua izan behar litzateke 2023ko bukaeran. Departamenduak 918 errepidearen bazterreko lan guziak bere gain hartuko ditu. Kolegioaren eraikitzearen eramailea SeaskaPro elkartea da. Lanak pagatzeko, mailegua, Elkartasun Kutxa eta Seaskaren funtsak erabiliko dira. « Ikastolen Egoitzak » elkarteak mailegua diruztatzeko parte hartuko du urteroko 100 000€-ko dotazioarekin.

- **Sohüta :** Aterbea eraikitzeko lanak 2023ko udan eginen dira.

- **Xalbador kolegioa :** Jantegiaren gainean kokatuak izanen diren Integrazio Batzordeko bulegoak antolatzeko lanak egiten ari dira eta 2023ko udan bururatuak izanen dira. Lanak "Ikastolen Egoitzak » elkarteak bere gain hartzen ditu.

- **Ziburu :** Ikastola lekuz aldatu zen 2022ko irailean, eta orain « Gurutze Gorriko » eskola publiko ohian kokatua da. « Ikastolen Egoitzak » elkarteak 10 000 €-ko urteko alokairua pagatzen dio herriko etxeari. Bertzalde, ikastola ohiaren lur eremuaren geroa aztertzen ari gira.

- **Hôtel des Basques :** lanak aitzinatzen ari dira eta 2023ko agorrilan bururatuak izanen dira. Negoziatzen ari gira, ikasleen / sasoinlarien logelak kudeatuko dituen erakundea hautatzeko.

Trois fois par an l'association sera invitée à se réunir en assemblée générale. Le bureau d'« Ikastolen Egoitzak » se réunira au minimum tous les mois. Il organisera les différentes rencontres entre les ikastola et les collectivités locales en lien avec Seaska pour mener à bien les projets neufs, les agrandissements ou modifications des locaux, les travaux courants d'entretien et de réparation. En fait, l'association assurera dans la mesure de ses moyens financiers et humains, de proposer des locaux adaptés aux besoins des différentes Ikastola, dans le cadre du budget affecté par le Conseil des Ikastola et en lien avec le Bureau Exécutif de Seaska.

« Ikastolen Egoitzak », par le biais de ses membres référents restera en contact avec toutes les ikastola (président(e) et représentant(e) d' « Ikastolen Egoitzak » dont il a la charge dans le courant de l'année. De même, chaque Ikastola pourra solliciter son/sa référent(e) lorsqu'elle en jugera la nécessité.

Du fait de l'augmentation importante des coûts énergétiques, Ikastolen Egoitzak a mis en place une cellule de réflexion sur les optimisations possibles dans les ikastola pour faire des économies d'énergie. Après recueil des données des différentes ikastola et analyse de ces données, des solutions seront proposées pour diminuer les consommations.

Rappel : les Ikastola occupant des locaux mis à disposition par « Ikastolen Egoitzak » ou par une collectivité territoriale sont tenues d'entretenir les locaux qu'elles occupent au même titre qu'un locataire normal dans un logement. Ceci fait partie de l'article 4 « charges et conditions » figurant dans la convention que l'Ikastola a signée et s'engage à respecter.

Enfin, il est important de rappeler qu'« Ikastolen Egoitzak » est une association qui fédère toutes les ikastola et qui à ce titre concerne donc tous les parents d'élèves : les dettes contractées par « Ikastolen Egoitzak » pour la rénovation, l'agrandissement ou la construction des locaux scolaires sont mutualisées et partagées par tou(te)s. Le bénévolat et l'implication des membres du Bureau d'« Ikastolen Egoitzak » ainsi que des délégués de chaque ikastola permettent de faire de substantielles économies sans lesquelles la plupart de nos projets ne pourraient jamais voir le jour. Il importe donc de mener une action de sensibilisation dans chaque ikastola afin de rappeler le sens de notre travail.

Travaux demandés ou déjà programmés :

- **Arbona-Ahetze :** Discussions en cours avec la mairie pour aménager les extérieurs.

- **Azkaine :** La commune va construire une nouvelle école publique et nous mettre à disposition l'actuelle. Le dossier est au stade de l'instruction du permis de construire.

- **Azkarate :** La mairie a déménagé et libéré les locaux actuels, qui vont être réservés à l'ikastola. Une étude de faisabilité a été réalisée par une architecte mandatée par Ikastolen Egoitzak. Discussions en cours pour la définition du projet, son montage et son financement.

- **Basusarri** : Les travaux du projet de rénovation sont bientôt terminés. Ouverture prévue rentrée septembre 2023.

- **Beskoitze :** Les locaux actuels en modulaires sont trop étroits et vétustes. Un permis de construire a été déposé pour la construction d'un bâtiment neuf sur la même parcelle, en cours d'instruction. Les travaux sont prévus sur 2023-2024. Le montant prévisionnel des travaux de construction et de l'aménagement provisoire de l'ikastola est de 900.000€. Ikastolen Egoitzak fera un emprunt sur 20 ans, qui aura un coût de 66 000 € par an.

- **Biriatu** : Le projet de réaménagement de l'ancien hôtel « Bakea » doit être mené en collaboration avec la mairie et la CAPB. Etudes en cours.

- **Baiona POLO :** Des travaux de réparation des toitures sont prévus pour stopper les infiltrations. La mise en place de protections solaires est également à l'étude pour éviter les surchauffes dans les salles de classe.

- **Bernat Etxepare Lizeoa :** Avec l'augmentation des effectifs, le lycée aura besoin de s'étendre. La CAPB réalise une étude urbaine sur la zone pour voir les possibilités de prise en compte des besoins du lycée sur les parcelles voisines. Pour assurer une rentrée 2023 dans de bonnes conditions, 2 salles de classes en modules préfabriqués seront installées durant l'été, en transférant des modules libérés dans les ikastola.

- **Bokale** : le nombre d'élèves augmentant, le préau actuel est devenu trop petit pour abriter tous les enfants, et doit être agrandi. Travaux prévus pendant l'été 2023.

- **Estitxu Robles kolegioa / Oihana (Baiona)** : Le projet de rénovation du bâtiment C (qui abrite l'administration, les locaux des enseignants et le CDI) va être intégralement pris en charge par le Conseil Départemental, suivant l'étude d'aménagement présentée par Ikastolen Egoitzak.
  Dans les anciens logements de fonction de l'étage, Ikastolen Egoitzak envisage la rénovation des locaux pour créer des logements partagés à destination des enseignant(e)s ou stagiaires de SEASKA.

- **Hiriburu :** Des discussions sont en cours avec la Communauté d'Agglomération, propriétaire du bâtiment, pour agrandissement de l'ikastola.

- **Itsasu :** les locaux sont trop exigus. La mairie et la CAPB étudient un projet pour agrandissement de l'ikastola dans les locaux de l'école publique.

- **Ortzaize :** les locaux étant trop exigus, une étude est en cours pour aménagement d'une salle de psychomotricité et d'une salle de sieste sous le préau, avec agrandissement de celui-ci.

- **5ième collège (Kattalin Elizalde - Senpere) :** Les travaux ont débuté début janvier 2023, avec l'objectif de livraison d'une première zone pour la rentrée de septembre 2023. La totalité des travaux devrait être terminée pour fin 2023. Le Conseil Départemental prend en charge des travaux d'aménagements nécessaires le long de la route départementale. La construction du collège est portée par Seaska Pro, financement par l'emprunt, Elkartasun Kutxa et fonds propres Seaska. « Ikastolen Egoitzak » participera au remboursement de cet emprunt par une dotation de 100 000 euros par an.

- **Sohüta :** les travaux de construction du préau vont être entrepris pendant les vacances d'été 2023.

- **Xalbador kolegioa :** Les travaux des bureaux d'Integrazio Batzordea (pris en charge par Ikastolen Egoitzak) sont en cours et seront terminés à l'été 2023.

- **Ziburu :** L'ikastola a déménagé dans ses nouveaux locaux à la rentrée de septembre 2022. Un loyer annuel de 10 000 € est pris en charge par Ikastolen Egoitzak. Par ailleurs, l'avenir du terrain occupé par les anciens locaux de l'ikastola, propriété d'Ikastolen Egoitzak est en réflexion.

- **Hôtel des Basques :** les travaux sont en cours, livraison prévue pour fin août. Les négociations sont en cours pour le choix du gestionnaire des logements étudiants et des logements saisonniers.